

Biztanleria okupatua hazi egin da, beste 9.000 okupatu baino gehiago baitaude, eta langabezia-tasa % 8,9ra jaitsi da, 2021eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn


7.400 etxe gehiago daude kide aktibo guztiak okupatuta dituztenak

Euskal AEko lan-merkatuari buruzko 2021eko hirugarren hiruhilekoko datuek erakusten dute 9.300 okupatu gehiago daudela eta 15.900 langabe gutxiago aurreko hiruhilekoan baino, Eustaten datuen arabera. Hiruhileko honetan 92.700 langabe daudela kalkulatzen da, eta 953.600 okupatu, urteko bigarren hiruhilekoan baino % 1 gehiago.

Euskal AEko langabezia-tasa % 8,9koa da, 2021eko bigarren hiruhilekoan baino ehuneko % 1,4 baxuagoa; tasa hori ez da ikusi 2010. urtetik. Biztanleria okupatuaren eta langabearen bilakaeraren emaitza gisa, jarduera-tasa % 55,8koa da 2021eko hirugarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekokoaren aldean ehuneko 0,5 puntu baxuagoa.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera

Ehunekoa



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Lurraldeen arabera eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaian hazi da gehien okupazioa; 5.000 pertsona okupatu gehiago daude. Gero, Araban; 3.000 okupatu gehiago daude. Eta, azkenik, Gipuzkoan; 1.400 okupatu gehiago daude. Hiriburuak direla eta, Vitoria-Gasteizen 2.800 okupatu gehiago daude, Donostian 2.100 gehiago eta Bilbon 500 gutxiago.

Generoa dela eta, okupazioaren gorakadarik handiena gizonen artean gertatu da; aurreko hiruhilekoan baino 6.600 okupatu gehiago daude. Emakumeen kasuan, 2.700 okupatu gehiago daude. Nazionalitatea dela eta, okupatu atzerritarren kasuan, 5.900 okupatu gehiago daude, eta espainiarren artean, 3.400 gehiago.

Okupazioak jarduera-sektore guztietan egin du gora, industrian izan ezik

Euskal AEko biztanleria okupatuak gora egin du zerbitzuen sektorean, 8.600 okupatu gehiago dira; eraikuntzan, 1.900 gehiago, eta, lehen sektorean, 400 gehiago. Industrian, berriz, okupatuak kopuruak behera egin du; 1.700 pertsona gutxiago dira.

Okupazio-tasak, 16 eta 64 urte bitarteko pertsona okupatuaren ehunekotan kalkulaturik adin horien guztizkoaren gainean, ehuneko 0,6 puntu egin du gora, aurreko hiruhilekoaren aldean, eta % 68,3koa da. Tasa hori % 71,4ra iritsi da gizonetan, eta % 65,2koa da emakumeetan.

Amaitutako ikasketa-maila dela eta, okupazio-tasaren gorakada handiena bigarren mailako edo erdi mailako ikasketak dituztenen artean gertatu da (ehuneko 1,7 puntu gora), eta % 60,7koa izan da; lehen mailako ikasketak eta baxuagoak dituztenen artean, okupazio-tasak 0,4 puntu egin du gora eta % 60,2koa da, eta, azkenik, goi-mailako ikasketak dituztenen artean, okupazio-tasak 0,2 puntu egin du behera, eta % 82,9koa da.

Nazionalitatea dela eta, okupazio-tasa altuena nazionalitate espainiarra duten pertsonen artean dago (% 69,8), eta atzerriko nazionalitatea duten artean % 55,3koa da (ehuneko 0,2 eta 3,6 puntu gehiago, hurrenez hurren).

Lurralde historikoen arabera, okupazio-tasa altuena Arabakoa da, % 69,9koa, eta aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,7 puntu gehiago. Gero, Gipuzkoakoa, % 69,7koa, aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,2 puntu gutxiago. Eta, azkenik, Bizkaikoa; bertan, okupazio-tasak ehuneko 0,9 puntu egin du gora (% 66,9).

Hamar etxetik ia seitan pertsona aktibo guztiak daude okupatuta

2021eko hirugarren hiruhilekoan kalkulatu da Euskal AEn 902.200 etxe inguru daudela eta, haietatik, heren batek pertsona aktiborik ez duela; hamar etxetik ia seitan pertsona aktibo guztiak daude okupatuta, aurreko hiruhilekoan baino 7.400 familia gehiago, eta, gainera, etxeko pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten 33.500 daude, aurreko hiruhilekoan baino 2.400 gutxiago. Pertsona aktiborik ez duen etxe-kopuruak gora egin du; 4.500 etxe gehiago daude.

2021eko hirugarren hiruhilekoak % 8,9ko langabezia-tasa du, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 1,4 puntu gutxiago (% 10,3)

Euskal AEko langabe-kopurua, alegia, enplegua bilatzen ari den, bilaketarako kudeaketa aktiboak egiten dituen eta, gainera, lan egiteko disponibilitatea duen pertsona-kopurua, urteko hirugarren hiruhilekoan, 92.700 dela kalkulatu da, aurreko hiruhilekoan baino 15.900 pertsona gutxiago; alegia, % 14,6ko beherakada egon da. Gizon langabeen kolektiboa 48.200 pertsona dira, 7.400 pertsonatan egin du behera (-% 13,3), eta, emakume langabeen kopuruak % 15,8 (8.400) egin du behera, guztira 44.600ra arte hiruhilekoan.

2021eko hirugarren hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 8,9koa da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 1,4 puntu baxuagoa. Gizonezkoen langabezia-tasa % 8,8koa da (ehuneko 1,3 puntu gutxiago) eta emakumezkoenak ehuneko 1,6 puntu egin du behera, % 8,9ra arte.

Ikasketak direla eta, langabezia-tasaren jaitsiera handiena ikasketa-maila altuena lehen mailako ikasketak eta beheragokoak amaitu dituztenen artean izan da (ehuneko 2,2 puntu gutxiago), langabezia-tasa % 11,6koa izanik; bigarren mailako eta erdi mailako ikasketak amaitu dituztenen artean, langabezia-tasak ehuneko 1,9 puntu egin du behera, eta % 10,6koa da, eta, azkenik, goi-mailako ikasketak dituztenen artean, langabezia-tasak ehuneko 0,8 puntu egin du behera, eta % 5,8koa da.

Nazionalitatea dela eta, langabeen kopuruak behera egin du nazionalitate espainiarra dutenen artean, eta 9.900 pertsona gutxiago dira (71.100, guztira). Nazionalitate atzerritarra dutenen artean, 6.100 gutxiago dira; guztira, 21.600 langabe.

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian langabe-kopuruak behera egin du, eta 8.500 gutxiago dira, eta langabezia-tasak ehuneko 1,5 puntu egin du behera, % 9,9koa izanik. Gipuzkoak 24.100 langabe ditu, eta, bertan, langabeziak behera egin du (4.200 gutxiago) eta langabezia-tasak ehuneko 1,2 puntu egin du behera, % 7ra arte. Araban, langabe-kopuruak behera egin du, eta 3.100 langabe gutxiago dira, eta langabezia-tasa % 9,2koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 1,9 puntu baxuagoa.

Hiriburuak direla eta, langabeziak guztietan egin du behera: Bilbon jaitsi da gehien langabe-kopurua, 3.100 langabe gutxiago baititu; ondoren, Vitoria-Gasteizen, 2.700 gutxiago baititu, eta, azkenik, Donostian, 1.700 gutxiago baititu.

EUROSTATen –Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa– datuen arabera, 2021eko abuztuan, Europar Batasuneko langabezia-tasa (urtaroen arabera) % 6,8koa izan da eta, Espainiakoa, % 14koa.

Azken urtean, pertsona okupatuen kopuruak % 3,6 egin du gora eta langabezia-tasak % 10,1etik % 8,9ra egin du behera

Euskal AEko biztanleria okupatuen kopuruak % 3,6 egin du gora, 2020ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta langabezia-tasak ehuneko 1,2 puntu egin du behera (% 10,1etik % 8,9ra); beraz, 11.000 pertsona gutxiago daude langabezia-egoeran Euskal AEn, 2020ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Hiruhilekoko batez besteko afiliatuen % 98,4 okupatuta daude, LANEren irizpideen arabera.

Euskal AEn hiruhilekoan, batez beste, 874.400 afiliatu daudela zenbatesten da, inkesta garaian Euskal AEko biztanle eta Gizarte Segurantzako afiliatu. Horietatik, % 98,4 okupatuak dira, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) irizpideen arabera, zeinak baitira BJAK darabiltzanak; beraz, 860.100 lagun.

BJAren LANE okupatuen artean, % 8,3 ez dira Gizarte Segurantzako afiliatu (79.500), ez baitaude Euskal AEn kokatutako enpresetan edo funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen % 34,1 ez dago Lanbiden langabe erregistratu gisa

Euskal AEn zenbatesten da 102.000 langabe daudela Lanbiden erregistratuta hiruhilekoan, batez beste; alegia, Euskal AEn bizi eta inkesta egin den unean langabeziako kategoria kalifikaturen batean daudela Lanbiden erregistratuta. Haietatik, % 57,3 langabeak dira, LANEren definizioaren arabera (58.400 pertsona). BJAREN LANE langabeen artean, % 34,1 ez dago langabe moduan erregistratuta Lanbiden (31.600 pertsona), baina enplegu-eskatzailen beste kategoria batzuetan egon daiteke.

Euskal AEko biztanleria jardueraren arabera (1). 2021/III

	2021/III	2021/II	Aldakuntza, aurreko hiru hilabetearen aldean	
	Milakoak	Milakoak	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.874,3	1.869,2	+5,1	0,3
AKTIBOAK	1.046,3	1.052,9	-6,6	-0,6
Gizonak	547,0	548,0	-1,0	-0,2
Emakumeak	499,3	505,0	-5,7	-1,1
Araba/Álava	161,4	161,5	-0,1	-0,1
Bizkaia	542,2	545,7	-3,5	-0,6
Gipuzkoa	342,8	345,7	-2,9	-0,8
Vitoria-Gasteiz	122,5	122,4	+0,1	+0,1
Bilbao	162,5	166,2	-3,7	-2,2
Donostia / San Sebastián	88,3	87,9	+0,4	+0,5
Beste udalerriak	673,1	676,4	-3,3	-0,5
Espainiarrak	944,2	950,5	-6,3	-0,7
Atzeritarrak	102,2	102,4	-0,2	-0,2
BIZTANLERIA LANDUNA	953,6	944,3	+9,3	+1,0
Gizonak	498,9	492,3	+6,6	+1,3
Emakumeak	454,7	452,0	+2,7	+0,6
Araba/Álava	146,5	143,5	+3,0	+2,1
Bizkaia	488,4	483,4	+5,0	+1,0
Gipuzkoa	318,8	317,4	+1,4	+0,4
Vitoria-Gasteiz	110,7	107,9	+2,8	+2,6
Bilbao	144,9	145,4	-0,5	-0,3
Donostia / San Sebastián	81,9	79,8	+2,1	+2,6
Beste udalerriak	616,1	611,2	+4,9	+0,8
Espainiarrak	873,0	869,6	+3,4	+0,4
Atzeritarrak	80,6	74,7	+5,9	+7,9
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	7,8	7,4	+0,4	+5,4
Industria	202,3	204,0	-1,7	-0,8
Eraikuntza	54,0	52,1	+1,9	+3,6
Zerbitzuak	689,5	680,9	+8,6	+1,3
Soldatakoak	780,4	772,8	+7,6	+1,0
- Kontratu mugagabea dutenak	541,1	540,4	+0,7	+0,1
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	239,3	232,4	+6,9	+3,0
Ez soldatakoak	173,2	171,5	+1,7	+1,0
LANGABEAK	92,7	108,6	-15,9	-14,6
Gizonak	48,2	55,6	-7,4	-13,3
Emakumeak	44,6	53,0	-8,4	-15,8
16 - 24	9,9	14,1	-4,2	-29,8
25 - 44	45,1	54,0	-8,9	-16,5
45 eta gehiago	37,7	40,6	-2,9	-7,1
Araba/Álava	14,9	18,0	-3,1	-17,2
Bizkaia	53,8	62,3	-8,5	-13,6
Gipuzkoa	24,1	28,3	-4,2	-14,8
Vitoria-Gasteiz	11,8	14,5	-2,7	-18,6
Bilbao	17,6	20,7	-3,1	-15,0
Donostia / San Sebastián	6,4	8,1	-1,7	-21,0
Beste udalerriak	56,9	65,2	-8,3	-12,7
Espainiarrak	71,1	81,0	-9,9	-12,2
Atzeritarrak	21,6	27,7	-6,1	-22,0
EZ-AKTIBOAK	827,9	816,2	+11,7	+1,4
ETXEBIZITZAK	902,2	901,8	+0,4	+0,0
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	608,3	612,4	-4,1	-0,7
- Guztiak okupatuak	536,0	528,6	+7,4	+1,4
- Guztiak langabeak	33,5	35,9	-2,4	-6,7
Aktiborik gabeko etxebizitzak	293,8	289,3	+4,5	+1,6

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskaratu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1etik populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Euskal AEko biztanleria jardueraren arabera. Tasa nagusiak (1). 2021/III

	2021/III	2021/II	Aldakuntza, aurreko hiru hilerekoaren aldean (e.p.*)
JARDUERA-TASA	55,8	56,3	-0,5
Gizonak	60,8	61,1	-0,3
Emakumeak	51,2	52,0	-0,8
Araba/Álava	58,5	58,9	-0,4
Bizkaia	54,9	55,4	-0,5
Gipuzkoa	56,0	56,7	-0,7
Vitoria-Gasteiz	59,2	59,7	-0,5
Bilbao	53,8	54,7	-0,9
Donostia / San Sebastián	56,5	56,1	+0,4
Beste udalerriak	55,7	56,2	-0,5
Espainiarrak	54,8	55,3	-0,5
Atzeritarrak	67,9	68,7	-0,8
BETETZE-TASA (16-64 urte bitarte)	68,3	67,7	+0,6
Gizonak	71,4	70,5	+0,9
Emakumeak	65,2	64,9	+0,3
Araba/Álava	69,9	69,2	+0,7
Bizkaia	66,9	66,0	+0,9
Gipuzkoa	69,7	69,9	-0,2
Vitoria-Gasteiz	70,3	69,2	+1,1
Bilbao	66,6	65,7	+0,9
Donostia / San Sebastián	70,9	69,1	+1,8
Beste udalerriak	68,0	67,8	+0,2
Espainiarrak	69,8	69,6	+0,2
Atzeritarrak	55,3	51,7	+3,6
LANGABEZIA TASA	8,9	10,3	-1,4
Gizonak	8,8	10,1	-1,3
Emakumeak	8,9	10,5	-1,6
16 - 24	18,3	25,0	-6,7
25 - 44	10,1	11,8	-1,7
45 eta gehiago	6,9	7,5	-0,6
Araba/Álava	9,2	11,1	-1,9
Bizkaia	9,9	11,4	-1,5
Gipuzkoa	7,0	8,2	-1,2
Vitoria-Gasteiz	9,7	11,9	-2,2
Bilbao	10,8	12,5	-1,7
Donostia / San Sebastián	7,2	9,3	-2,1
Beste udalerriak	8,5	9,6	-1,1
Espainiarrak	7,5	8,5	-1,0
Atzeritarrak	21,1	27,0	-5,9
EZ-AKTIBOTASUN TASA	44,2	43,7	+0,5

*e.p. = Aldea, ehunekotan

hórretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62